



KOSTUAK

Gure aplikazioak irabaziak emateaz gain kostuak ere dakartza. Kostu horiek hainbat motatakoak izan daitezke, hala nola, kostu finkoak edo aldakorak edota kostu zuzen edo zeharkakoak.

Aplikazioa mantentzearen eta berritzearen kostua aldakorra izango da, izan ere, informatikariak mantenduko du aplikazioa eta honi hilero soldata bat ordaindu beharko diogu. Aplikazioa martxan dagoen biartean, informatikariaren soldataren kostua, kostu aldakorra izateaz gain, kostu zuzena izango litzateke produktu bakar bat eskeintzen dugulako. Agian epe luzera beste aplikazioen bat sortuko bagenu, zeharkako kostu bihurtuko litzateke produktu batean baino gehiagotan lan egingo zuelako.

Lan egiteko erabiliko dugun bulegoarengatik alokairua, argia, ura... ordaindu beharko ditugu. Kostu horiek kostu finkoak izango dira. Guzti horrengatik ordaindu beharko duguna beti berdina izango da eta ez da aldatuko beste edozein mugimendu edo aldaketekin.

Aplikazioa bera sortzeak kostu finko bat dakar. Aplikazioa informatikari batek sortuko du eta informatikariari aplikazioa sortzeagatik kostu finko bat ordainduko diogu.

Zerbitzarien kostua ere kostu finko bat izango da. "Hewlett Packard Enterprise Packard Enterprise Proliant Microserver Gen10.X3216, 8.GB" markako bi zerbitzari beharko ditugu eta bakoitzak 370€ inguru balio du.

Kostu guztiak zuzenak izango dira, produktu bakar batean lan egiten dugulako. Hala eta guztiz ere, bulegoaren kostuak, hau da, argindarra, alokairua, ura... zeharkako kostuak izango lirateke, baina gure kasuan lehen esan bezala, kostu zuzenak izango lirateke produktu bakar bat dugulako.

Gutxi gora behera urtean izango dugun kostu totala 26.793€-koa izango da. Kontuan hartuta aplikazioa sortzeak 7500€, mantentzeak 9450€, alokairuak 6000€, argiak 360€, urak 180€, internetak 360€, bi zerbitzariak 740€ eta bi ordenagailuek 2903€ kostatuko digula.

Narrea Etxebeste
Beñat Rios
Asier Alkorta
Martxel Parrondo
Oihane Elizegi

